

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko uztailaren 21eko bilera arruntean (3/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

**8 Gaia:** Olabe, Elorrio eta Gallarta Laguntza Zentroetako Zuzendaritzako hiru Teknikari lanpostu (2025eko martxoaren 27ko 60. Bao) betetzeko Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen 2022 eta 2025 urteetako Lan Publikoaren Eskaintzei dagozkien hautaprobaren deialdia bertan behera uztea.

**"Lehenengoa.**- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen 2022ko eta 2025eko enplegu publikoko eskaintzei dagozkien hautaprobaren deialdi partikularra bertan behera uztea (Olabe, Elorrio eta Gallarta laguntza-zentroetako zuzendaritzako lanpostuetarako erdi-mailako teknikariaren hiru plaza betetzekoa).

**Bigarrena.**- Erabaki judiziala ematen den arte etetea; ebazpen hori interesdunei jakinarazi beharko baitzaie. Beraz, administrazio-organo eskudunak ebazpena eman ahal izango du izapide gehigarririk egin beharrik gabe, entzunaldi-izapidea izan ezik, hala badagokio.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, aurreko arrazoiketarekin batera.

**Laugarrena.**- Erakundearen iragarki-taulan, web-orrian eta intraneten argitaratzeko agintzea.

**Bosgarrena.**- Ebazpen hau Gobernu Batzordeari helaraztea, egiten duen hurrengo bilkuran, baliozkotzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera."

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-07-30  
GUFRE-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA  
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

